



### Diputatuen Kontseiluak, 2018ko irailaren 11ko bileran, ondoko erabakia hartu du:

Diputatuen Kontseiluak 2018ko uztailaren 24ko bileran erabaki zuen onartzea erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregular iraunkorreko zerbitzu publikoaren "Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak" izeneko emakida esleitzeko kontratazio espedientea eta aipatutako kontratazioa arautuko duten baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen agiriak. Halaber, erabaki zuen xedatzea kontratua esleitzeko prozedura irekiari hasiera ematea.

Kontratua esleitzeko lizitazio iragarkia Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2018ko abuztuaren 3an eta, horrela, proposamenak aurkezteko epea zabaldu zen. Epea 2018ko irailaren 14ko 12:00 orduetan bukatzen da.

Akats materiala antzeman da eskaintza ekonomikoak baloratzeko formularen baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taularen 2.1.1 atalean jasotakoan, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuaren 2018ko irailaren 5eko txostenean jasotzen denez. Hori horrela, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 122.1 artikulua xedatzen duenari jarraikiz, baldintzen agiri hori aldatu egin behar da, zuzentzeko.

Akatsa hau da: 2,5 jartzen duen tokian 2,15 jarri behar duela.

Baldintzen agirian eskaintzak baloratzeko jasota dagoen formula hau da:

#### **"2.1.1. Linea zerbitzu erregularrak: 43 puntutaraino.**

*Puntuazioa 43en gainean: 0 puntu emango zaizkio lizitazio prezioa berdintzen duenari, eta 2,5 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen bakoitzeko; gehienez 43 puntu emango dira, beherapenen batek % 20 gainditu ezean, orduan 43 puntu emango baitzaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.*

*Para  $B_{max} \leq 20\%$  >>>  $P = 2,5 \times B$ .  
Para  $B_{max} > 20\%$  >>>  $P = 43 \times B / B_{max}$ .*

*Beherapena (B) honela kalkulatu da: lizitazio oinarriaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, lizitazio oinarriaz zatituta.*

*( $B_{max}$  = Beherapen maximoa)."*

### El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de fecha 11 de septiembre de 2018, ha adoptado el siguiente acuerdo:

El Consejo de Gobierno Foral en sesión de fecha 24 de julio de 2018 acordó aprobar el expediente de contratación para la adjudicación de la concesión del servicio público de transporte de viajeros, regular permanente de uso general denominada "Tolosa, N-I y Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián", así como el correspondiente pliego de cláusulas administrativas particulares y el pliego de prescripciones técnicas que regirán la citada contratación, disponiendo la apertura de la licitación por el procedimiento abierto.

El anuncio de licitación para la adjudicación del contrato fue publicado en el perfil del contratante de la Diputación Foral el 3 de agosto de 2018, abriendo así el plazo para la presentación de proposiciones que vence el día 14 de septiembre de 2018 a las 12:00 horas.

Detectado error material en la fórmula de valoración de las ofertas económicas contenida en el apartado 2.1.1. del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares, según se desprende del informe emitido por el Servicio de Movilidad y Transportes de fecha 5 de septiembre de 2018, procede, de acuerdo con lo que dispone el artículo 122.1 de la Ley de Contratos del Sector Público, modificar el citado pliego a fin de corregirlo.

El error consiste en que donde pone 2,5 debe poner 2,15.

Así, la fórmula de valoración de las ofertas del pliego aprobado es la siguiente:

#### **"2.1.1. Servicios lineales regulares: hasta 43 puntos.**

*Puntuación sobre 43: Se calculará otorgando 0 puntos a la oferta que iguale el tipo de licitación e incrementando 2,5 puntos por cada 1% de baja, siendo la puntuación máxima de 43 puntos, salvo que alguna baja supere el 20 %, en cuyo caso se le otorgarán 43 puntos y se interpolará el resto.*

*Para  $B_{max} \leq 20\%$  >>>  $P = 2,5 \times B$ .  
Para  $B_{max} > 20\%$  >>>  $P = 43 \times B / B_{max}$ .*

*Se entiende por baja (B), la diferencia entre el tipo de licitación y la oferta económica, dividida por el tipo de licitación.*

*( $B_{max}$  = Baja máxima)."*



Eta testu zuzenak hau jaso beharko luke:

**"2.1.1. Linea zerbitzu erregularrak: 43 puntutaraino.**

Puntuazioa 43en gainean: 0 puntu emango zaizkio lizitazio prezioa berdintzen duenari, eta 2,15 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen bakoitzeko; gehienez 43 puntu emango dira, beherapenen batek % 20 gainditu ezean, orduan 43 puntu emango baitaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.

Para  $B_{max} \leq 20\% \gg P = 2,15 \times B$ .  
Para  $B_{max} > 20\% \gg P = 43 \times B / B_{max}$ .

Beherapena (B) honela kalkulatu da: lizitazio oinarriaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, lizitazio oinarriaz zatituta.

( $B_{max}$  = Beherapen maximoa.)"

Beraz, beharrezkoa da baldintza administratibo berezien agiriak zuzentzea, eta eskaintzak aurkezteko epea luzatzea.

Horrela, bada, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak proposaturik, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

**ERABAKITZEN DU**

**Lehenengo.-** Antzemandako akats materiala zuzentzea, erabaki honen azalpen zatian adierazi den bezala, baldintza administratibo berezien agirian, erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregular iraunkorreko zerbitzu publikoaren "Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak" izeneko emakida esleitzeko kontratazioa arautzekoan..

**Bigarren.-** Eskaintzak aurkezteko epea urriaren 15 arte luzatzea, egun hori barne.

Mientras que el texto correcto debería ser:

**"2.1.1. Servicios lineales regulares: hasta 43 puntos.**

Puntuación sobre 43: Se calculará otorgando 0 puntos a la oferta que iguale el tipo de licitación e incrementando 2,15 puntos por cada 1% de baja, siendo la puntuación máxima de 43 puntos, salvo que alguna baja supere el 20 %, en cuyo caso se le otorgarán 43 puntos y se interpolará el resto.

Para  $B_{max} \leq 20\% \gg P = 2,15 \times B$ .  
Para  $B_{max} > 20\% \gg P = 43 \times B / B_{max}$ .

Se entiende por baja (B), la diferencia entre el tipo de licitación y la oferta económica, dividida por el tipo de licitación."

( $B_{max}$  = Baja máxima.)"

Por lo tanto, resulta necesario rectificar el pliego de cláusulas administrativas particulares y ampliar el plazo de presentación de ofertas.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral de Movilidad y Ordenación del Territorio, previa deliberación, este Consejo de Gobierno Foral

**ACUERDA**

**Primero.-** Corregir en el sentido que se indica en la parte expositiva del presente acuerdo el error material detectado en el pliego de cláusulas administrativas particulares que ha de regir la contratación para la adjudicación de la concesión del servicio público de transporte de viajeros; regular permanente de uso general denominada "Tolosa, N-I y Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián.

**Segundo.-** Ampliar el plazo de presentación de ofertas hasta el día 15 de octubre inclusive.

Donostia, 2018ko irailaren 11a / San Sebastián, 11 de septiembre de 2018

**IDAZKARI TEKNIKOA, / EL SECRETARIO TÉCNICO,**

  
Izp. / Fdo.: Segundo Diez Molinero

**KONTRATATZAILEAREN PROFILA**